

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 7/2020 Instrukzioa, uztailaren 1ekoa, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemaileari (COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzkoa), 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemaileari (foru-dekretu arauemaile honen bidez, egokitzeko tributu-neurriak sartzen dira sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta) eta COVID-19ak sortutako osasun-larrialdiarekin lotutako tributuen arloko beste gai batzuei buruzkoa.

COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzko 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemaileak malgutzte-erregela batzuk sartu zituen alderdi hauetan: Europako epe luzerako inbertsio-funts jakin batzuen karakterizazioan, tributu-ondorioetarako; pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan; ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, eta sozietateen gaineko zergan. Helburua zen zergadunek zentzuzko epeak izatea foru-dekretuan araututako neurri guztiak aplikatu ahal izateko. Neurri horietako bat da sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko ezohiko epea ematea beren urteko kontuak kontuoi dagokien zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteen ondorengo epe batean onetsi dituzten mikroenpresa eta enpresa txikiei.

Bestalde, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemaileak egokitzeko tributu-neurriak sartu zituen sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta. Hala, osatu egin zituen COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko aurretiaz emandako foru-dekretu arauemaileen bidez hartutako neurri guztiak eta arau osagarri berezi batzuk ezarri zituen. Neurri horien artean, azpimarratzekoa da, batetik, sozietateen gaineko zergaren 2020ko ordainketa zatikatua kendu zaiela krisi sanitarioak gehien eragin dien enpresei, eta, bestetik, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa eskuragarri dauden kontuekin aurkezteko era arautu dela, borondatezko epea amaitzen denerako erakundeko organo eskudunak oraindik urteko kontuak onartu gabe dituen kasuetarako.

Azkenik, badaude, COVID-19aren pandemiak sortutako krisiaren ondorioak arintzeko, beste eremu batzuetan hartu diren neurriekin zerikusia duten tributuen arloko beste gai batzuk Bizkaiko Lurralde Historikoan emandako ezein arautan jasota ez daudenak.

Ondorioz, ahalik eta segurtasun handiena emateko, komenigarria da zehaztea eta, kasu batzuetan, argitzea gure ordenamendu juridikoan sartutako koiunturazko neurri horiek tributuen arloan dituzten ondorioak.

Goian azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:



## 1. COVID-19ak eragindako osasun-krisia dela eta, gizarte-aurreikuspeneko sistemei dagozkien eskubideak baliatzeko ezohiko kasuak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 19.2 artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 15. artikulua 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, Finantza Politikako zuzendariaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenean (honen bidez, baimena ematen da COVID-19aren ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea ezinbestean aplikatu behar izan zaien BGAE-etako bazkideek langabezia-prestazioa kobratzen diren) eta 2020 martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren (haren bidez, presazko neurri osagarriak hartzen dira esparru sozial eta ekonomikoan, COVID-19ari aurre egiteko) hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritako gizarte-aurreikuspeneko sistemei dagozkien eskubideak baliatzeko ezohiko kasuak bestelako kontingentziatzat joko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 15. artikulua 2. apartatuan jasotako kontingentzietatik dagokienez.

Horrenbestez, eskubide ekonomikoak eta/edo kontsolidatuak Finantza Politikako zuzendariaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenean eta 2020 martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren arrazoietatik batengatik kobratzen direnean, ulertuko da kobrantza hori ez dela lortu erretiroa, ezintasun iraunkorra edo baliaezintasuna, heriotza, mendekotasuna, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larria dela-eta, edo Pentsio-planak eta -funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 8.8 artikuluan ezarritako kontingentziak edo egoerak ez direnengatik kobratu direla kopuru horiek.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 19.2.b) artikuluan araututako 100eko 60ko integrazio-portzentajea aplikatu ahal izango da Finantza Politikako zuzendariaren 2020ko martxoaren 25eko Ebazpenean eta 2020 martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren ondorioz jasotako kopuruen gainean, betiere kopuru horiek kapital gisa eskuratzen badira.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 15.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta, goiko paragrafoan aipatutako baldintza (kapital gisa kobratzea) betetzat joko da zergadunek ekitaldi bakarrean kobratzen dituen arrazoi hori dela-eta bere eskubidekoak diren kopuru guztiak.

Aipatutako 100eko 60ko integrazio-portzentajea aplikatu daitekeen zenbatekoaren muga 300.000 euro da, urtean, eta batera aplikatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 19.2 artikulua b) eta c) letretan araututako etekinetan.



**2. Fiskalki babestuta dauden kooperatibak.** Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan araututako kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren kopuruak 2020ko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako xedeetarako aplikatzea (ekonomia eta enplegua sustatzeko premiazko neurri osagarriei buruzkoa da errege lege-dekretu hori).

Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko 2018ko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 12.3 artikulua ezartzen du fiskalki babestutako kooperatiba izaera galtzeko arrazoi izango dela Euskadiko Kooperatiben 1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68 bis artikuluan (2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikulua) ezarritako kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren zenbatekoak artikulua horretan ezarritako helburuetarako barik beste zerbaitetarako erabiltzea.

Bestalde, Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko 2018ko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 19.2 artikulua, heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako zein interes publikoa duten beste helburu batzuetarako nahitaezko kontribuzioa gastu gisa kengarria izateko betekizunei buruzkoak, ezartzen du, ekarpen hori ezarritako helburuetarako barik beste zerbaitetarako erabiltzen bada, fiskalki babestutako izaera galtzeaz gainera, oker erabilitako kopurua sarreratzat joko dela.

Ilido horretan, Ekonomia eta enplegua sustatzeko premiazko neurri osagarriei buruzko 2020ko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikulua ezohiko neurri bat arautzen du Kooperatiben Hezkuntza eta Sustapen Funtzaren erabilera malgutzeko aldi baterako, COVID-19aren ondorioak arintzeko. Hori dela eta, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean eta 2020ko maiatzaren 31ra arte, funts hori xede hauetarako erabili ahal izango da, osorik edo partez:

a) Finantza-baliabide gisa erabiltzeko, kooperatibak likidezia izan dezan, bere funtzionamendurako hala behar badu. Kasu honetan, xede honetarako erabilitako zenbatekoa itzuli egin beharko da gutxienez urte bakoitzean lortzen dituen erabilera libreko emaitzen 100eko 30 erabilita, funtsak aurretiaz zuen zenbatekoa izan arte. Horretarako, 10 urteko epea izango da gehienez.

b) COVID-19ak eragindako osasun-krisia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduerarako, bai jardun propioen bitartez, bai beste erakunde publiko edo pribatuei egindako dohaintzen bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren sozietate kooperatiboei 2020ko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren (Ekonomia eta enplegua sustatzeko premiazko neurri osagarriei buruzkoa) 13. artikuluan ezarritakoa nola aplikatu behar zaien aztertzen duen Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen 2020ko maiatzaren 26ko txostenean ezarritakoarekin bat etorrita, 2020ko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikulua horren 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoa Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatutakoa bete behar duten kooperatibei ere aplikatu ahal zaie (kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokionez).

Beraz, ekarpena legez onartutako xede baterako erabiliko denez, Euskadiko Kooperatiben 2019ko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan (1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 68 bis artikulua) jasotako kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren



zenbatekoak 2020ko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren 13. artikuluan eta Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen 2020ko maiatzaren 26ko txostenean ezarritako xedeetarako erabiltzen dituzten kooperatibek ez dute galduko fiskalki babestutako kooperatiba izaera, betiere manu horietan ezarritako baldintzetan egiten badute. Horrez gainera, kasu horietan, hala aplikatutako kopuruak ez dira sarreratzat joko kooperatibentzat.

### **3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan tributu-tratamendu jakin batzuk malgutzeko ezohiko neurriak (2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailekoak).**

#### **3.1. Etxebizitza-kontuen epearen luzapena.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. Lehen artikulua 6 urtetik 7 urtera luzatzen du etxebizitza-kontuen epea, baldin eta kontuon ohiko epea 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada (hau da, 2014an zabaldutako kontuena). Halaber, etxebizitza-kontuetan urte horretan sartutako kopuruek ohiko etxea erostearen ondoriozko kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dutela zehazten du.

Beraz, 2020an ez da amaituko ezelango etxebizitza-konturen epea. 2014an zabaldutako etxebizitza-kontuen epea 2021ean amaituko da.

#### **3.2. Eraikitzen ari den ohiko etxebizitza erosteko epea luzatzea.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. Bigarren artikulua 4 urtetik 5 urtera luzatzen du zergadunek obrak amaitzeko duten epea, etxebizitza eraikitzeke obrek eragindako gastuak zuzenean ordaintzen dituztenean edo sustatzaileari etxebizitzaren konturako zenbatekoak ematen dizkiotenean, betiere 4 urteko ohiko epea 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 30era bitartean amaitzen bada.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 68.1.b) artikuluan aipatutako epearen luzapen automatiko honek 2016an eraikitzen hasi ziren etxebizitzetara eragiten die.

#### **3.3. Ohiko etxebizitza eskualdatzen denean berrinbertsioa egiteko epea luzatzea.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. Hirugarren artikulua 2 urtetik 3 urtera luzatzen du ohiko etxebizitza saltzean lortutako kopuruak berrinbertitzeko epea, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 49. artikuluan 2. apartatuan jasotzen dena, bi kasu hauek: ohiko etxebizitza 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean eskualdatzen denean, eta ohiko etxebizitza 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean erosi eta geroago aurreko ohiko etxebizitza eskualdatzen denean.



Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 49.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorrira, berrinbertitzeko epe honen luzapena eskualdatu aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza zen etxebizitza familiarra eskualdatzen denean ere aplikatuko da, baldin eta ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean emandako erabaki judizial bat dela-eta galdu badu izaera hori.

### **3.4. Ohiko etxebizitza benetan eta modu iraunkorrean okupatzeko epea.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Laugarrena artikulua 12 hilabetetik 18 hilabetera luzatzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 67. artikulua 2. apartatuan jasotzen den epea, ohiko etxebizitza benetan eta modu iraunkorrean okupatzekoa, eta hala aurretiaz egindako kenkariak aplikatzeko eskubidea finkatuko da baldin eta epe hori 2020ko martxoaren 16tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

### **3.5. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua, salbuesitako ondare-irabazien ondorioetarako.**

#### **3.5.1. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.**

Aurreko 3.3 puntuan ezarritakoarekin bat, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bosgarrena artikulua ezartzen du ohiko etxebizitza 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean erosi eta eskualdatzen bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 49. artikuluan araututako berrinbertsioaren ondoriozko salbuespena aplikatzeko, kasu hauetan ulertuko dela zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela: eraikin hori une horretan haren ohiko etxebizitza denean edo haren ohiko etxebizitza izan denean hura eskualdatu aurreko hiru urteetako edozein egunera arte.

Beraz, kasu horietan, bi urtetik hiru urtera luzatzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 67. artikulua 4. apartatuan ezarritako epe orokorra.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 49.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 67. artikulua 4. apartatuan ezarritako epearen luzapena eskualdatu aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza zen etxebizitza familiarra eskualdatzen denean ere aplikatuko da, baldin eta ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean emandako erabaki judizial bat dela-eta galdu badu izaera hori.

Ondorio horietarako, berrinbertsioaren ondoriozko salbuespena aplikatu ahal izateko, eskualdatutako etxebizitza familiarrak zergadunaren ezkontide edo izatezko bikotekide ohiaren eta, hala badagokio, kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten haien arteko ondorengoen ohiko etxebizitza izan behar du. Inguruabar hori zehazteko, puntu honetan xedatutakoa aplikatuko da.



### **3.5.2. Mendekotasun-egoera larrian edo mendekotasun oso larrian dauden pertsonen eta 65 urtetik gorakoek beren ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa egiten dutenean aplikatu ahal den salbuespena.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 42. artikulua b) eta c) letretan, hurrenez hurren, mendekotasun-egoera larrian edo mendekotasun oso larrian dauden pertsonen eta 65 urtetik gorakoek beren ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa egiten dutenerako ezarritako salbuespenak aplikatzeko, erakinak ohikoa izateari uzten badio 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. Bosgarrena artikulua ezartzen du kasu hauetan ulertuko dela zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela: eraikin hori une horretan haren ohiko etxebizitza denean edo haren ohiko etxebizitza izan denean hura eskualdatu aurreko hiru urteetako edozein egunera arte.

Horrenbestez, arau orokorretan xedatutakoarekin bat, 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean ohikoa izateari utzi dioten etxebizitza horien kasuan bi urtetik hiru urtera luzatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 67. artikulua 4. apartatua ezarritako epea.

## **4. Sozietateen gaineko zergan tributatu-tratamendu jakin batzuk malgutzeko ezohiko neurriak (2020ko apirilaren 28ko Foru Dekretu Arauemailekoak).**

### **4.1. Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua, eraikuntzako ibilgetuko elementuetarako.**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 21. artikulua 1. apartatua b) letretan eta 2. apartatua, amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua arautzen dira, hurrenez hurren mikroenpresek edo enpresa txikiek eta enpresa ertainek erosten dituzten ibilgetu materialeko elementu berrietarako, zergaldian sinatutako obra-kontratuen bidez enkargatutakoak barne, baldin eta kontratua amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen jartzen badira enpresaren esku.

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. Lehena artikulua 12 hilabetetik 24 hilabetera luzatzen du epe hori, 2020an mugaeguneratzen bada.

### **4.2. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. Bigarrena artikulua urtebetez luzatzen du (hau da, 4 urtera) ondare-elementua eman edo eskuragarri den egunaren ondoren berrinbertsioa egiteko hiru urteko epea, hau da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 36.1 artikulua (aparteko mozkinak berrinbertitzea) eta 38.1 artikulua (xede edo helburu hori betetzeari afektatutako ondasunak kostu bidez eskualdatzean salbuespen partziala duten entitateek egiten duten berrinbertsioa) araututako epeak, betiere epe horiek 2020an mugaeguneratzen badira.

Luzapen horiek 2017an egindako eskualdaketei eragiten diete.



Halaber, berrinbertsioa egiteko epearen bost urtera arteko luzapena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 116. artikulua 5. apartatua aipatzen dena (higiezinen errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateei dagokiena), urtebetez luzatuko da (beraz, 6 urtera artekoa izango da luzapena), baldin eta luzapen hori 2020an mugaeguneratzen bada.

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemaileak ez du luzatu ondare-elementua eman edo eskuragarri den egunaren ondoren berrinbertsioa egiteko urte bateko epea errenta sortzen duen aktiboa eskualdatu baino lehen eskuratutako ondare-elementu batean egiten bada berrinbertsioa.

Hala ere, aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, zergadunek berrinbertsio-plan berezi bat eskatu ahal izango dute kasu horietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 11. artikulua 4. apartatua ezarritakoarekin bat. Honen arabera, zergadunek berrinbertsio-plan bereziak onestea eska dezakete, baldin eta gerora agertutako inguruabarrak direla-eta, behar bezala justifikatutakoak betiere, ezin badute berrinbertsio-prozesua ezarritako epe orokorrean bete. Kasu horretan, berrinbertsioa egiteko epea amaitu baino lehen eskatu behar dute plan hori.

Berrinbertsio-plan berezia berrinbertsioa egiteko epea amaitu baino lehen eskatzeari dagokionez, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko 2020ko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bi artikulua ezarritakoarekin bat, kontuan hartu behar da, foru-dekretu arauemaile hori indarrean jarri zenean (2020ko martxoaren 16a) zergapekoak eskatuta tributuen arloan hasi beharreko edozein jarduketaren (kasu honetan, berrinbertsio plan bereziaren eskaera) epearen zenbaketa hasita zegoen kasuetan, epe hori etenda egon dela 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era.

#### **4.3. Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Hirugarrena artikulua hiru urtetik lau urtera luzatzen du ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezirako zuzkitutako zenbatekoak dagokien helbururako erabiltzeko gehieneko epea, epe hori 2020an amaitzen bada.

Zergadunak epearen luzatze hori erreserba dagokion xederako baliatzeko erabiltzen badu, urtebetez luzatuko da erreserbaren saldoa erabili ezin izango duen epea ere.

Zergadunak ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba bereziaren saldoa osorik edo partez erabiltzen badu Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 53. artikulua 2. apartatuaren c) letran jasotako helburuetarako, orduan, berrinbertsioa egiteko egutegia aldatu ahal izango du. Horretarako, komunikazio bat bidali behar dio Administrazioari, egutegiaren aldaketaren eta aldaketarako arrazioen berri emateko.



#### 4.4. Ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

##### 4.4.1. Finantzaketa-kontratuen formalizazioa.

2020ko ekitaldian hasitako ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuei dagokienez, hiru hilabetetik bederatzi hilabetera luzatzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 64 bis artikulua 2. apartatua aipatzen diren finantzaketa-kontratuak formalizatzeko sozietateen gaineko zergaren arautegiak ematen duen epea, baldin eta kalifikazio-txostena proiektua exekutatzeko hasi aurretik eskatu bada eta artean amaitu gabe badago aitortzea egiteko borondatezko epea (ez da eskatzen zergaldia amaitu gabe egotea, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 36 bis artikulua 2. apartatua arau orokor gisa eskatzen dena).

Horrez gainera, urte anitzeko ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen kasuan, haien exekuzioa finantzaketa-kontratuak sinatu aurretik hasi bazen, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikulua Laugarrena apartatuaren Bi zenbakian xedatutakoarekin bat etorrira, finantzaketa-kontratuak sinatu ahal izango dira 2020ko lehenengo bederatzi hilabeteetan.

##### 4.4.2. Dagoeneko formalizatuta dauden finantzaketa-kontratuen aldaketa.

###### 4.4.2.1 Ordainketen, gastuen eta inbertsioen egutegia birdoitzea.

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikulua Laugarrena apartatuaren Hiru zenbakiak aukera ematen du 2020an exekutatzeko ari diren ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzeko dagoeneko formalizatuta dauden kontratuak aldatzeko, ordainketen, gastuen eta inbertsioen egutegia birdoitzeko. Aldaketa horien berri eman behar da formalizatu eta hiru hilabete epearen barruan eta, betiere, 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

###### 4.4.2.2. Subrogazioa finantzatzailearen posizioan.

Azkenik, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikulua Laugarrena apartatuaren Hiru zenbakiarekin bat etorrira, salbuespen gisa, subrogazioa onartu ahal da ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan, betiere subrogazio hori 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko lehenengo bederatzi hilabeteen barruan egiten bada.

Kasu horietan, behin-behinean, proiektua egiten duen zergadunak berak finantzatu ahal izango ditu proiektuok (funtz propioekin edo beste batzuenekin), aurreko finantzatzailea irten eta berria sartzen den arte pasatzen den denboran.

Beraz, ulertu ahal da proiektuaren finantzaketan parte hartzen duenaren posizioan egindako salbuespeneko subrogazio hori garatzaileak proiektua behin-behinean finantzatzen duenean ere aplikatu ahal dela, betiere finantzatzaile berriak aurrekoaren posizioa betetzen badu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko lehenengo bederatzi hilabeteen barruan.





#### **4.5. Kenkaria aplikatzen zaien aktibo ez-korronteak birjartzeko edo ordeztzeko epea.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Bosgarrena artikulua hiru hilabetetik bederatzira luzatzen du kenkaria aplikatzen zaien aktibo ez-korronteak birjartzeko edo ordeztzeko epea, hots, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2020 abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 67. artikulua 5. apartatuaren bigarren paragrafoan ezarritakoa, baldin eta 2020ko martxoaren 16tik 2020ko abenduaren 31ra bitartean mugaeguneratzen bada.

**5. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan tributu-tratamendu jakin batzuk malgutzeko ezohiko neurriak (2020ko apirilaren 28ko Foru Dekretu Arauemailekoak).**

##### **5.1. Ohiko etxebizitzarekin lotutako epeen luzapena.**

Instrukzio honen aurreko 3.4 puntuan xedatutakoarekin bat, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua Bat apartatuak 12 hilabetetik 18 hilabetera luzatzen du, etxebizitza erosten denetik hasita, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren 13. artikulua etxebizitza eskuratzailaren ohiko bizileku gisa erabiltzen dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko epea, kostu bidezko ondare-eskualdaketatik 100eko 2,5eko tasa aplikatu ahal izateko, baldin eta epe hori 2020ko martxoaren 16tik abenduaren 31ra bitartean amaitzen bada.

Halaber, 100eko 2,5eko tasa hori aplikatzeari dagokionez, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua Bi apartatuak sei hilabetez luzatzen du (hamazortzi hilabetetik hogeita laura) zergadunak lokalak etxebizitza izateko lehen erabilerako edo okupazioko lizentzia lortu duela egiaztatzeko duen epea, epe hori 2020ko martxoaren 16tik abenduaren 31ra bitartean amaitzen denean.

##### **5.2. Maileguak eta kredituak direla-eta, COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko onartutako luzamenduen eta kontratu-berritzeen formalizazio-eskriturei dagokien salbuespena.**

2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua Hiru apartatuak eta 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua aldatu egiten dute Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren 58. artikulua, hipoteka-mailegu eta -kredituen luzamenduen eta kontratu-berritzeen formalizazio-eskriturak salbuesteko, baldin eta luzamendu eta berritze horiek formalizatzen badira 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak –COVID-19ren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurri buruzkoa– ezarritakoaren babesean, edozein dela ere hipoteka-mailegu eta -kreditu horiek eskatzea eragin zuen xedea, betiere martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretu horretan onartutako luzamenduak eta berritzeak badira.

Horrez gainera, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren 58. artikulua aldatzen du 2020ko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren (haren bidez, presazko neurri osagarriak hartzen dira esparru sozial eta ekonomikoan, COVID-19ari aurre egiteko) 24.2



artikuluak aipatzen den luzamendua formalizatzeko eskritura publikoak salbuesteko, hipoteka bermerik ez duten kreditu-kontratuei dagokienez.

Azkenik, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 4. artikulua Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren 58. artikuluan egindako aldaketaren bidez, ezartzen da salbuetsita egongo direla COVID-19ak eragindako osasun-krisia dela-eta sinatu diren sektoreko esparru-akordioen babesean emandako ohiko luzamenduak formalizatzeko eskriturak. 2020ko maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Dekretu Legearen 7. artikuluan aipatzen dira ohiko luzamendu horiek.

## **6. Sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua.**

2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko Bat apartatuarekin bat, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 130.bis artikuluan aipatzen den ordainketa zatikatua ez dute egin beharko 2020ko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1. Bat artikulua 1. zenbakiaren a), b) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergadunek (4/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzkoa).

Beraz, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 130.bis artikuluan aipatzen diren zergadunek gainera, 2020an ez dute egin beharko artikulua horretan araututako ordainketa zatikatua baldintza hauek betetzen dituzten erakundeek:

a) 2019ko ekitaldian ustiapen ekonomiko bat egitea Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ez izatea ondare-sozietatea, foru-arau horren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Beraz, entitate horien 2019ko ekitaldiko sarreren 100eko 85 gutxienez jarduera enpresarial edo profesionalak egitetik etorri behar dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13.4 artikuluan zehaztuta dagoenaren arabera, eta entitate horiek ezin dira ondare-sozietate izan.

b) Ez tributatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren araututako zerga-baterakuntzaren araubide berezian.

c) 2020. urteko lehen sei hilabete eragiketen bolumena gutxienez 100eko 25 txikiagoa izatea 2019. urteko lehen sei hilabete eragiketen bolumena baino.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoa; artikulua horren arabera, hau joko da eragiketa-bolumen zat: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Horrez gainera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 5. artikulua 3. apartatua ezarritakoarekin koherente izatearren, magnitude baliokideak konparatu ahal izateko, 2019. urtean eraturako entitateen kasuan edo ekitaldi horretan ustiapen ekonomiko bat abiarazi zuten



jarduerarik gabeko entitateen kasuan, 2019ko eragiketen bolumena urte osoko bolumentzat hartu, eta lortutako zenbatekoaren 100eko 50 (urte osoko eragiketen bolumenaren 100eko 50) alderatu beharko da 2020ko lehenengo seihilekoko eragiketen bolumenarekin.

## 7. Osasun-langileentzako doako aseguru kolektiboa.

2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikulua xedatzen du 2020an pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik salbuesita egongo direla COVID-19ak eragindako gaixotasun eta heriotzen ondoriozko prestazioak, hurrenez hurren. Prestazio horiek osasun-langileentzako doako aseguru kolektibotik (aseguru-entitateek Unión Española de Entidades Aseguradoras y Reaseguradoras -UNESPA- erakundearen bidez sinatua) edo aseguru-entitateek sinatutako antzeko ezaugarriak dituen beste edozein doako aseguru kolektibotik eratorriak izan daitezke.

Ondorio horietarako, UNESPAren bidez sinatutako aseguruari dagokionez, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen zioen azalpenean adierazitakoarekin bat, salbuespen hau arlo sanitarioan edo soziosanitarioan lan egiten duten eta aseguruan sartuta dauden pertsona guztiei aplikatuko zaie, zentzu hertsian osasun-arloko langiletzat jo ezin badira ere.

Horrenbestez, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluan aipatzen diren osasun-langileak dira, besteak beste, ospitale, osasun-zentro eta larrialdi-zerbitzu publikoetan eta ospitale pribatuetan lan egiten duten medikuak, erizainak, erizain-laguntzaileak, zeladoreak eta anbulantzietako langileak, baita adinekoen egoitza publiko eta pribatuetako langileak ere.

Aurrekoaz gainera, UNESPAren bidez harpidetutako aseguru horri dagokionez, hau ulertu behar da osasun-langileei dagokienez:

(i) Aseguruari dagozkion primak ordaintzeak ez du ondorio fiskalik ez aseguratuentzat ezta onuradunentzat ere, ez dutelako eragiten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren zerga-egitatea. Izan ere, ordainketak ez die eskubide baldintzagaberik ematen (polizak estalita egoteaz gainera), ez da haiek emandako zerbitzu bati dagokion kontraprestazioa edo ordainsaria (ongintza-egintza bat bideratzeko bide juridikoa baizik) eta prima horiek ezin dira indibidualizatu, printzipioz zehatz kuantifikatuta ez dagoen edo modu pertsonalean identifikatuta ez dagoen kolektibo baten alde ordaintzen baitira, pertsona bakoitzak izan ditzakeen arriskuen eraginpean egoteko inguruabar indibidualak kontuan hartu gabe.

(ii) Aseguru honen ondorioz jaso daitezkeen kopuruak -aseguratuak, ospitaleratzea dela-eta; onuradunek, aseguratuaren heriotza dela-eta- oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren pean daude. Lehenengo kasuan, doako eta «inter vivos» negozio juridiko gisa, eta bigarrean, berriz, aseguratuaren heriotzaren ondoriozko asegurua jasotzen delako. Ez daude pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean, eskuzabaltasun- eta altruismo-egintza baten ondorio baitira kasu bietan, lan-harremanik edo zerbitzu-prestazioaren arloko harremanik gabe. Hori dela eta, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluan pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aipatzen denean, aipamena justifikatuta dago artikuluan araututako salbuespena UNESPAren bidez harpidetutako asegurua antzekoei aplikatu ahal zaielako.



**8. Urteko kontuak kontuoi dagokien zergaldia amaitu eta sei hilabete igaro ondorengo epe batean onetsi dituzten zergadunek sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko arauak.**

**8.1. Urteko kontuak onartzeko epea.**

**8.1.1. 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua.**

2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua ezartzen du, 2020ko maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez emandako idazkeran (errege lege-dekretu horren bidez, neurri osagarriak hartzen dira nekazaritza, zientzia, ekonomia, enplegua eta gizarte-segurantzaren arloetan eta tributuen arloan, COVID-19aren eraginak arintzeko), 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 1era bitartean etenda egongo dela ekitaldi soziala amaitu eta hiru hilabeteko epean pertsona juridikoen gobernu- edo administrazio-organoari dagokion urteko kontuak eta sozietateei buruzko legeriaren arabera eskatu ahal diren gainerako agiriak aurkezteko betebeharra, eta hiru hilabeteko beste epe bat hasiko dela ekainaren 1etik aurrera. Hori hala bada ere, baliozkoak izango dira alarma-egoera indarrean egon den bitartean aurkeztutako kontuak, zeinak oro har ezarritako legezko epean egiaztatu ahal izango baitira, edo, bestela, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua 4. apartatua ezarritako luzapenean.

Horrez gainera, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua 5. apartatua (2020ko maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez emandako idazkeran hau ere) eransten du urteko kontuak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bi hilabeteko epean ohiko batzar orokorraren bilera egin beharko dela nahitaez.

Beraz, urteko kontuak 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikuluan xedatutakoarekin bat onartzeko gehieneko epea 2020ko urriaren 31n amaituko da, beranduenez. Hala ondorioztatzen da, batetik, 2020ko maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren zioen azalpenean ezarritakotik, eta, bestetik, Espainiako Ekonomialarien Kontseilu Nagusiak gai honi buruz aurkeztutako kontsultari erantzuteko, Justizia Ministerioko Zerbitzu Publikoaren Berrikuntza eta Kalitatea Sustatzeko Idazkaritza Nagusiko Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak 2020ko ekainaren 5ean emandako erantzunetik.

**8.1.2. 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 41. artikulua**

Bestalde, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 41. artikulua -sozietate anonimo kotizatuei buruzkoa da- ezartzen du, salbuespen gisa, 2020an, Europar Batasuneko merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartutako baloreak dituzten sozietateek sei hilabeteko epea izango dutela, gehienez, ekitaldi soziala ixten denetik zenbatuta, urteko finantza-txostena argitaratu eta CNMVra bidaltzeko eta beren urteko kontuen auditoria-txostena argitaratzeko. Ohiko batzar orokorra ekitaldi sozialaren lehen hamar hilabeteen barruan egin ahal izango dute.

Beraz, sozietate anonimo kotizatuei dagokienez, 2019ko abenduaren 31n itxitako urteko kontuak 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoarekin bat onesteko gehieneko epea 2020ko urriaren 31n amaituko da ere.



## 8.2. 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikulua. Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko ezohiko epea.

### 8.2.1. Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko ezohiko epea baliatu ahal izateko eskatzen diren baldintzak.

2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikulua sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko ezohiko epe bat ezartzen du, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126.1 artikuluan oro har ezarritako epearen ordean, baldintza hauek betetzen dituzten erakundeentzat:

1) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresak edo enpresa txikiak izatea.

COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko, mikroenpresa eta enpresa txikien alde hartutako gainerako ezohiko neurriekin eta zergaren beste arlo batzuetan enpresa horiei ematen zaien tratamenduekin bat etorruta, ondorio hauetarako ulertu behar da 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikuluan sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko ezohiko borondatezko epea erabili ahal duten mikroenpresak eta enpresa txikiak direla, batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan definitutakoak, zerga horren araubide orokorrean tributatzeko dutenak, haien zatitza ezarritako berezitasunekin eta foru-arau horren 56.1.b) artikuluan ezarritako karga-tasa dutenak; eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko 2018ko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren 23. artikuluan aipatzen diren mikroenpresentzat eta enpresa txikitzat jotako kooperatibak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera salbuespen partziala duten erakundeek eta irabazteko asmorik gabeko erakundeek zerga-araubide berezia (gaur egun irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien Zerga-Araubideari buruzko 2019ko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren dago araututa) aplikatzen duten entitateek ezin dute neurri hau aplikatu.

Ezin dute aplikatu ere aldi baterako enpresa-elkarteek, ez dutelako nortasun juridikorik eta ez dituztelako urteko kontuak aurkeztu behar. Eta ezin dute aplikatu interes ekonomikoko elkarrekin, ez baitute sozietateen gaineko zerga ordaindu behar, ez bada Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren bazkideei egotzi ahal zaien zerga-oinarriaren zatiari dagokiona.

Aurreko guztiarekin bat etorritako mikroenpresa edo enpresa txikiaren izaera ezohiko borondatezko epean aurkeztu den autolikidazioari dagokion ekitaldian izan behar da. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan 5. apartatuan xedatutakoa kontuan hartuta, artikuluan horren 1. eta 2. apartatuetan eskatutako baldintzak aurre-aurreko zergaldian bete behar dituzte.

2) Ez tributatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VI. kapituluaren VI. artikuluan araututako zerga-baterakuntzaren araubide berezian.



3) Urteko kontuak onestea kontuoi dagokien zergaldia amaitu eta 6 hilabete igaro ondorengo epe batean, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 40. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz (instrukzio honen 8.1.1 puntuan aztertu da).

Hau da, urteko kontuak 2020ko urriaren 31a baino lehen onartzea.

### **8.2.2. Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko ezohiko epea.**

Instrukzio honen aurreko puntuan aztertutako baldintzak betetzen dituzten mikroenpresek eta enpresa txikiek epe honetan aurkeztu ahal izango dute sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa: ukitutako zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteen ondorengo lehen egun naturaletik urteko kontuak onesten diren hilaren hurrengo hilaren 25era arte. Kontuok 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikuluan ezarritakoarekin bat onartu behar dituzte.

Beraz, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko ezohiko borondatezko epea 2020ko azaroaren 25ean amaituko da, beranduenez, kontuak 2020ko urriaren onartzen dituzten zergadunen kasuan.

Autolikidazioa aurkezteko borondatezko epe honen azken egun hau hartuko da kontuan Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 129. artikuluan diru-kopuruak itzultzeko aipatzen den sei hilabeteko epea zenbatzeko, baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 121. artikuluan ezarritako autolikidazioaren bidez hasitako prozeduraren iraungitze-epea zenbatzeko ere.

Aitorpena egiteko borondatezko epea ez da luzatuko 2020ko azaroaren 25etik aurrera erakundeak ez baditu kontuak onartzen horretarako duen gehieneko epearen barruan (hau da, 2020ko urriaren 31 baino lehen), hemen azaltzen den neurria kontuak dagokion ekitaldia ixten denetik hurrengo sei hilabeteak pasatu ondoren onartzen dituzten erakundeentzat baita, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikuluan baimendutakoaren arabera, eta ezin izango die beste onurarik ekarri kontuak epe barruan onartzeko merkataritza-betebeharra betetzen ez duten konpainiei.

### **8.2.3. Banku-helbideratzeak zorduntzeko datak**

Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko ezohiko epearen azken eguna edozein dela ere, zergadunak kuotaren ordainketa helbideratzea erabakitzen duenean, autolikidazioa aurkeztu eta hurrengo hilabeteko 25. egunean zordunduko du kontuan ordainketa Administrazioak (autolikidazioa aurkezteko borondatezko epea amaitu ez bada ere).

Erregela hau zergadunak zergaren kuotaren ordainketa helbideratzea aukeratzen duenean baino ezin izango da aplikatu. Ordaintzeko beste era bat aukeratzen bada, ez da aplikatuko.



### **8.3. 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bi artikulua. Zenbait kasutan sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko arau osagarriak.**

#### **8.3.1. Aplikazio-eremua.**

2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoarekin bat, urteko kontuak kontuoi dagokien zergaldia amaitu eta sei hilabete igaro ondorengo epe batean onetsi dituzten sozietateen gaineko zergaren zergadunek 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez badute, ezin dutelako edo ez dutelako aukera hori erabili nahi, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126.1 artikuluan araututako epe orokorrean aurkeztu beharko dute sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa (zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteen ondorengo 25 egun naturalen barruan), 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bigarrena artikuluan ezarritako berezitasunekin.

Ondorio horietarako, ulertu behar da 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikuluan xedatutakoa ez dutela benetan aplikatuko, horretarako baldintzak ez dituztenez, aplikatzeko eskubidea ez duten zergadunek eta, aukera izanda, ez erabiltzea erabakitzen dutenek sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezten dutenean Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko 11/2013 Foru Arauaren 126.1 artikuluan ezarritako epean, 2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bi artikuluan ezarritako baldintzetan.

#### **8.3.2. Autolikidazioa eskuragarri dauden urteko kontuekin aurkeztea.**

2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluekin bat etorrita zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko epea amaitzen denean urteko kontuak onartu gabe dituzten erakundeek ez badute aukeratu 2020ko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3.Seigarrena artikuluan ezarritako ezohiko epea erabiltzea, eskubiderik ez dutelako edo ez erabiltzea erabaki dutelako, orduan autolikidazioa eskuragarri dauden kontuekin aurkeztu beharko dute. Hau da:

- 1) Sozietate anonimo kotizatuen kasuan, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 41. artikulua 1. apartatuaren a) letran aipatzen diren urteko kontu auditatuekin.
- 2) Gainerako zergadunen kasuan, urteko kontu auditatuekin, edo, halakorik izan ezean, dagokion organoak formulatutako urteko kontuekin. Dagokion organoak ez badu konturik formulatu, Merkataritzako Kodean ezarritakoaren arabera egindako kontabilitatearekin, edo, bestela, haiei aplikatzen zaizkien arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

#### **8.3.3. Urteko kontuak geroago onartzea.**

Organo eskudunak onetsitako urteko kontuekin bat egindako zergaren autolikidazioa ez badator bat eskuragarri izandako kontuekin aurkeztutakoarekin, zergadunek beste autolikidazio bat aurkeztu beharko dute 2020ko azaroaren 25a baino lehen. Zergaren autolikidazioa ez bada aldatzen onetsitako urteko kontuak aintzat hartuta, ez da beste autolikidaziorik aurkeztu beharko.



Autolikidazio berria osagarritzat joko da, baldin eta haren ondorioz eskuragarri izandako urteko kontuekin aurkeztutako autolikidazioaren emaitzaren zenbatekotik gorako zenbatekoa sartu behar bada edo zenbateko horretatik beherako zenbatekoa itzuli behar bada. Sartu behar den kopuruak berandutze-interesak sortuko ditu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126.1 artikuluan aitortpena aurkezteko epe arrunta amaitu eta biharamunetik hasita.

Gainerako kasuetan, autolikidazio berriak aurkezten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez da aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 118. artikulua 2. apartatua ezarritakoa, ezta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 85. artikulua eta hurrengoetan ezarritakoa ere, aurretiaz aurkeztutako autolikidazioen zuzenketa kasuan. Era berean, ez dira mugatuko administrazioak lehenengo autolikidazioa eta autolikidazio berria egiaztatzeke dituen ahalmenak.

Autolikidazio berriaren ondorioz kopuru bat itzuli behar bada aurreko autolikidazioan egindako sarrera bat dela eta, berandutza-interesak sortuko dira kopuru horren gainean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikulua 1. apartatua borondatezko aitortpena egiteko adierazitako epea amaitu eta biharamunetik hasita.

Bigarren autolikidazioen kasuan, ez dira aplikatuko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 128. artikulua jasotzen diren mugak lehenengo autolikidazioetan baliatutako aukerak zuzentzeari dagokionez.

Zergaren arautegia aplikatzearen ondorioz kopuruak itzuli behar badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 129. artikulua xedatutakoa aplikatuko da, eta artikulua horretan aipatzen den 6 hilabeteko epea 2020ko azaroaren 25etik aurrera zenbatuko da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 121. artikulua aipatzen den autolikidazio bidez hasitako prozeduraren iraingitze-epea Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126.1 artikulua aitortpena aurkezteko ezarritako borondatezko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuko da hasierako autolikidazioen kasuan, eta 2020ko azaroaren 25etik aurrera, berriz, bigarren autolikidazioen kasuan.

## **9. Finantza-errentamenduko kontratuak.**

2020ko ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Hiru artikulua xedatzen du 2020an berririko negoziatzen edo sinatzen diren finantza-errentamenduko kontratuak Sozietateen gaineko Zergaren 2013ko abenduaren 5ko 11/2013 Foru Arauaren 18. artikulua ezarritako tratamendua aplikatu ahal izango dutela nahiz eta, kuoten barruan, ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokion zatiaren urteko zenbatekoa aldatu kontratuak dirauen epe osoan, edo ez hazi epe horretan zehar.

Bilbon, 2020ko uztailaren 13a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA  
Sin.: Iñaki Alonso Arce.